

Lorategi-museo irekia. Otaza

Tokia: Otaza. Ozeta. (Araba)
Modalitatea: sormena.
Helburua: Otazan "lorategi-museo irekia" abiaraztea.
Datak: uztailaren 15etik 29ra // uztailaren 30etik abuztuaren 13ra
Adina: 18-26 urte
Plaza-kopurua: 20
Mota: nazioartekoa
Hizkuntza: ingelesa. (Nahitaezkoa da ingelesez ongi mintzatzea.)
Kuota: 72 €

Garaion Naturartea irabazi-asmorik gabeko elkarte da, Araban aisialdi-gune berria sortu nahi duena. Aisialdiari sormenezko jarduerak garatzeko tresna gisa balioa erantsi nahi dioten pertsona eta erakundeek osatutako elkarte da. Elkarreak, era berean, naturarekiko zaletasuna eta ondare sozial eta kulturalari balioa ematea ditu xede.

Garaion Naturartea Ozetako Otaza auzoan kokatuta dago, Barrundiako udalerrian, Arabako Lautadan. Bere kokapena zoragarria da, Ullibarri-Ganboako urtegiaren aurrean eta Garaioako hondartzatik gertu dago, baina Zadorra errekaen ertzetik ostera polita eman behar da. Elgeako mendilerroa, Barrundia eta Debagoiena haranak batzen dituen, Garaion Naturarteatik kilometro gutxira dago, eta Otazak mendilerroaren ikuspegi paregabea eskaintzen du. Elgearen atzean Aizkorri-Aratz Parke Naturala dago.

Otaza XIX. mendean hustutako herria da. Garaion Naturartea elkarreak, proiektu honen bitartez, historikoki herria izandako guneari balioa eta bizitza berria eman nahi dio, horrela Arabako historiaren zati bat ezagutzeko aukera izateko.

Auzolandegi honen helburua da parte-hartzaile bakoitzaren sormena piztea, emozioen eta naturaren pertzepzio berriaren arteko harremanetik sortutako harremanetik abiatuta. Tokikoaren balioa, pertsona guztiek sormena dugula sinestea eta naturarekin bat eginda bizi nahi izatea dira proiektu honen oinarri nagusiak.

Hainbat jatorri eta kulturetako gazteen laguntzari esker eta denek helburu berarekin, gizarte-proiektzioa duen proiektu bat —kasu honetan, lorategi-museo ireki bat— burutzen lagunduta, alegia, elkarte honen inguruneari balioa emango zaio.

Estekak ikusteko, sakatu "Ctrl" eta egizu klik testuaren gainean.

[Ozaeta \(Barruntia\)](#)

[Ozaeta kokapena \(Barruntia\) \(Álava\)](#)

LANAREN DESKRIBAPENA

Auzolandegi honen helburua da, batetik, parte-hartzaile bakoitzaren sormena piztea, emozioen eta naturaren pertzepzio berriaren arteko harremanetik abiatuta; bestetik, bizikidetzaren, elkartasuna, tolerantzia, parte-hartzea eta kulturarteko ikaskuntza elkarbanatu eta sustatzea.

Zer da lorategi-museo irekia?

Naturatik oso gertu egoteko eta berarekin artea sortzeko aukera emango duen espazioa da; bertan, historiak, naturak eta sormenak bat egingo dute.

Hori dela eta, auzolandegi honen xedea iaz hasitako lanarekin –lorategi-museo irekia abiaraztea, alegia– jarraitzea da. 2010eko auzolandegiko parte-hartzaileek berreskuratutako espazio horiek "jantzi" nahi ditugu aurtengo udan.

1. Antzoki txikia sortzea. Lehenik eta behin, diseinatu egingo da; gero, diseinu hori gorpuztu egingo da, arkitekto baten eta paisaiagile baten laguntzaz.
2. Askotariko espazioak sortzea, etorkizunean taldeko lanak gauzatu ahal izateko (komunitateko lorategia).
3. Lorategi artistikoak gauzatzea. Boluntarioak lorategigintza artistikoko lantegi bateko ikasleekin elkarlanean arituko dira. Ikasle horiek inguruetakoko udalerriri bakoitzerako lorategi bana ari dira diseinatzen.
4. Birziklatze-jarduerak. Besteak beste, naturan bildutako materialekin eta hondakinekin musika-tresnak sortzea. Era berean, egur zaharrak mosaikoz estalitako mahai bihurtzea, lasto-fardoekin eskulturak egitea eta abar.

ANIMAZIO-JARDUERAK

Animazio-taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen arteko harremanak sendotzeko eta auzolandegia dagoen ingurua eta herritarrak hobeto ezagutzeko.

Gainera zenbait ekintza prestatuko ditu Euskal Herriko kultura eta ohiturak ezagutarazteko (kirol-jarduerak, jolasak, txangoak, bisitaldi kulturalak...). Adibidez, txangoa egingo da Zumaiara –bertako amildegi ikusgarriak ezagutzeko–, Donostiara eta Zarautzera.

Animazio-taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo egiteko zakua
- Burkoa (behar baldin baduzu)
- Dutzarako eta igerilekurako toalla
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirol egitekoak
- Kapelaren bat eguzkitarako
- Bainu-jantzia
- Bizkar-zorroa edo motxila txikia, txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO DOKUMENTUAK

Parte hartzaile bakoitzak eraman beharko du:

- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaporte
- **Osasun Txartel Indibiduala** (Europar Batasuneko beste herrialde batzuetatik datozenen kasuan, Europako Osasun Txartela)

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: Ozetako Otaza auzoan, Barrundiako udalerrian; Aguraindik 10 minutura dago, eta Gasteiztik 20 minutura.

Ostatua: auzolandegiaren ondoko dorretxean. Logelak lehen solairuan daude. Sukalde zabala eta jantokia atxikitako etxe txikian daude.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Txanda bakoitzaren lehen egunean elkartzeko noiz-nongoak adostuko dira.

Ordu horretarako iritsi ezin denak —betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio—, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA IRITSI AUZOLANDEGIRA

[Heltzeko informazio gehiago](#)

Autobusez, Gasteiztik Ozaetara:

Gasteizko autobus-geltokia: José Mardones kalea, Tel.: +34 945258400

Enpresa: Alegría Hermanos S.A. Tel.: 945 25 19 00

Autobus-línea: 20 Araia-Ozaeta-Vitoria

Irteerak Gasteiztik:

- Lanegunetan: 8:00, 14:00, 15:00, 18:15, 20:15
- Larunbatetan: 9:30, 14:00, 20:15
- Igande eta jaiegunetan: 8:40, 14:00, 21:00

Bidaiaren iraupena: 30 minutu g.g.b.

:

Informazio gehiago: <http://www.turismoa.euskadi.net>

http://194.30.32.164/transportes/transportes/es/rutas/rutas_autobus.asp

Trenez: RENFEk geltoki bat du Araian.

Tel: +34 902 24 02 02 / +34 902 24 34 02

<http://www.renfe.com/EN/viajeros/index.html>

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00-10:00 bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak gazte bakoitzari **istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguru**a egingo dio. Dena den, gaixotasun berezirik edo ahalmen-urritasunik edukiz gero, horren berri eman behar zaio **Eusko Jaurlaritzari**, Jaurlaritzak gazteak behar dituen estaldurak sar ditzan aseguru polizan.

Gazte bakoitzak bere **osasun-txartela** ekarri behar du auzolandegira.

ARGIBIDEAK ETA HARREMANETARAKO TELEFONOAK

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel: **945 01 95 01- 945 01 95 36**
- Helbide elektronikoa: gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi <http://www.gazteukera.euskadi.net> webgunean (ikusi Auzolandegiak - Arauak).